

Gure literaturaren etorkizuna, ez dago esan beharrik, gazteagoen ekintzetatik behar du eta esperantza berririk bada gazteriaren aldetik azken urte hauetan, asmo berriak bide berri idekiztaile. Beto zorionean.

Horiatariko bat dugu Koldo Izagirre, egungo idazle berrien artetik berezietako bat gure literaturaren zori hoberako.

Koldo, besteak beste, ekologia arazoak ere kezkatzen du eta gauzetan zehar dabil gai hori bere errotik hartuaz:

«Xiberuko mendi sakaratura joan ginen, Orhiko arbola zaharrek lo etzanda egiten zutelakoa egia ote zen. Oihan beltzean barrena abiatu ginen bertako artzainek gorrotoz begiratzeko zigutelarik. Oso gerora konturatuko ginen geure profanazioaz».

Egia esan, Zuberoatik landa ezer guti gelditzen zaigu Natura zaintze hortan.

Gure idazle gazte honek irudimen bizkorra eta aberatsa du, euskeraren erabileraz ostera, zer esanik ere ez: idazle heldu baten luma nabari du, *Gauzetan* zehar. Eta gauzak beren barretatik dituzten mila sekretu kontatzen dizkigu: arboletan, elurretan, teilatuetan, izarretan, uretan, burdinetan, zer gertatzen den nik ezin dizut kontatu, are gutiago egileak bezala, irakurle. Zerorrek begiratu eta antza eman beharko diozu uste berritzaile, kontseilurik eta mezurik aurkitu nahi baldin baduzu, zerorrek aurkitu edo susmatu, gauzetan eta gauzen inguruetan biltzen den mundu guziaz, zeren mundua mundu eta gizona gizon denetik oharren zolitasunaren arakera jokatu behar duenez holako irakurgai batean. Egileak berak, erarik naturalenean aitortuko dizu: «Zer kontatuko dizut. Ilargi laurdenak enbarazoa dagit eta izarrek gezurra besterik ez diostate. Ene bihotza ere gautu duenean. Zure gogotan. Gauzen izenek baliorik ez dutenean. Eta begia burdin artetik ezin zabaldurik...».

Zalantzarik gabe, egileak, doain eta ahalmen bereziak ditu literaturagintzarako eta beragan itxaropenik badugu.

Liburua erraz eta gogoz irakurtzekoa da. Edonorrentzat gomendagarri.

Gure herri industrializatu hontan, nahi dena ezina denez ahaldena egitea ez da guti. Horregatik, Natura zaintzeak bere graduak ditu, eta horregatik behar bada, K. Izagirrek adierazten digu beste honako hau ere: «Eta mundu berri bat jaso nahi dutenek salba daitezela leize zuloetan izkutatuz edo itsas zabalera ihes eginez».

*Otsalar*